

S22EA2


AH azido batetik 1,6g hartu eta 100ml urarekin nahastu egindako disoluzioa NaOH 1M-rekin baloratzen da, eta basetik hartutako 20ml gehitu ondoren lortzen da baliokidetasun-puntua. Kalkulatu:

- AH azidoaren molaritatea hasierako disoluzioan
- AH azidoaren Ph-a hasierako disoluzioan . Haren ionizazio-konstantea: $K_a = 2,4 \cdot 10^{-6}$
- AH azidoaren ionizazio-maila hasierako disoluzioan, ehunekotan adierazita.
- AH azidoaren masa molarra g/mol-tan adierazita.

S22EB2

Ozpin komertzialak baloratzeko, hemen azaldutako muntaketa egiten da:

- Izendatu itzazu behar diren tresna eta errektibo guztiak, osatu muntaketa eta esan zer substantzia ipintzen d(ir)en muntaketaren elementu bakoitzarean.
- Idatzi erreakzio kimiko doituta, izendatu adierazle egoki bat eta azaldu, laburki, prozedura operatiboa.
- Nolako izango da pH-a baliokidetasun-puntuan, neutroa, azidoa edo basikoa? .Arrazoitu.
- Ozpinaren ordea, HCl-aren disoluzio urtsu bat baloratuko balitz, nolako izango litzateke pH-a baliokidetasun-puntuan? .Arrazoitu.



S22UB2

HA azido monoprotiko baten disoluzio urtsu $3 \cdot 10^{-2}$ M baten pH-a 4 da. Kalkulatu:

- Anioiaren kontzentrazio molarra disoluzioan eta azidoaren disoziazio maila.
- Azidoaren K_a konstantearen balioa.
- Azidoaren base konjugatuaren K_b konstantearen balioa.